

## Etimologia kontua ote?



Karlos Gorrindo  
EUSKARA TEKNIKARIA  
@kgorrindo

**A** la sentimendu hutsa baino ez? Nazio kontzeptua soziologikoa da, psikologikoa eta emozionala, nonbaitekoak eta bertakoak garen sentimendua, ustea, egiaztapena. Nonbaitekoa izatea eta identitatea. Nazio adiera jaio edota sortzea dela adierazten du etimologiak. Estatu juridiko-politikoak gero datoz, lurraldea taxutu eta arautzeko uanean, alegia.

Zer gara gu, besteek gu izatea nahiko luketena ala sentitzen garena? Nongoak gara gu, beraz? Argi eta garbi, gu sentitzen garen toki horretakoak. Gu sentitzen dugun hori gara, azalaren itxuraren gainetik. Nork esan behar dio inori nor ala zer den, hangoa ala hemengoa den. Arauek edo legeek adierazten dute soil-soilik nor eta nongoak garen? Eta sentimenduak? Eta soziologiak? Eta emozioak?

Liburua azalaz egiten omen du. Kanpoko itxurak. Baina barrualdeko orriak zuri baleude, liburu itxura baino ez luke izango. Liburu izaera barruko orrialdeetan idatzita dagoenak ematen dio. Eta ez dakigu, entsegua, ipuina, poesia, sukalderakoa edota marrazkiz jositakoa den zabaltzen ez dugun bitartean. Kanpoko itxura orokorra, iragankorra eta engainagarria izan daiteke. Barrukoa, zehatza eta ondo errotua da, nor, zer eta nongoak egiten gaituena.

Gu nazio kulturala gara zalantza izpirik gabe (hizkuntza, kultura, ohiturak, sinesmenak...), baina ez gara estatu, hots, izaera juridiko-politikoa

duen herria. Izan badugu lege eta arau multzo bat gure errealitate funtzionala egituratzen duena, eta hiru errealitate administratibo. Eta hegoaldekoen kasuan, Estatutua eta Foru Hobekuntza Espainiako Goi Araudi baten menpe daude. Bi nazioen Goi Araudien menpe dago gure nazioa. Eta araudi horien menpe jarraitzen dugun bitartean ez gara gu geu izango (nazioa), espainiarrek eta frantziarrek gu izatea nahi dutena. baizik.

Gure Goi Araudia egin behar dugu. Estatu izaera erdietsi. Juridikoki eta politikoki antolatu. Oinarriak baditugu, izan ere: ekonomikoak, kulturalak, estrukturalak eta giza balia bideak. Guk ez dugu Espainia handi baten parte izan nahi, berau indartzeko. Ez dut jazarria, mendean hartua eta gu geu izaten uzten ez diguten estatu-nazio batzuen parte izan nahi.

Espainia aberri izan aitzin, gu baginen leinu eta herri. Herrien izaerak makina bat jira eta bira ematen du historian zehar: Baskoiak, Karistiarrek, Barduliarrek... Nafarroako Erresumaren baitakoak eta Espainiaren menpekoak. Esatea erraza da, jakina. Egitea da gaitzago. Are eta gehiago zu nor zaren eta nongoa zaren kanpoko batek erabakitzen duenean: Espainiak, Frantziak, Europak....

Horrexegatik beragatik Kosovoko Independentzia Adierazpenari jarraitu behar diogu nahitaez, honek ez baitu Nazioarteko Zuzenbidea urratzen alde bakarreko independentzia adierazpena eginda. ■

## Basazaldiez



Castillo Suárez  
BLOGARIA  
@casti\_suarez

**A** nimaliak dira kaltetuenak suteetan. Arnasarik gabe geratu eta hil egiten dira eta ihes egitea lortzen duten asko autoek hitzen dituzte. Behin zaldi bat kolpatu nuen, sute batetik ihes zoroan atera zena. Hil egin zen bertan. Errepide bazterrean geratu nintzen, zauriak laztanduz, jabea etorri zen arte. Basazaldia zen. Nik ez nuen inor zain eta kamioi txiki batean eraman zuten arte geratu nintzen errepide bazterrean. Ez zen surik sumatzen geunden tokitik, baina animalia izua errepideraino iritsi zen heriotza eta denbora

elkartzen diren tokian. Su eman zioten basazaldiari. Eta ederra bezain mingarria iruditu zitzaidan sutetik ihesi hil zen animalia erre behar izatea gaitzik ez barreiatzeko. Tarteka amets egiten dut heriotzarekin. Tarteka amets egiten dut zure heriotzarekin. Eta basazaldiari nola, laztantzen dizkizudala zauriak beranduegi bada ere. Absentzia nola bete erakutsiko didan norbait ezagutu dudala esan nahi nizuke. Itsaso bazterrerantz eramango nauena elurrak estalitako auto batean. Basazaldi batek trostan zeharkatzen ditu nire ametsak. ■